BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

# Gerediagako Foru Zelaia apirilaren 5etik aurrera zabalik egongo da asteburuetan

Gerediagan, 2014ko apirilaren 2an

Gerediaga Elkartea, Bizkaiko Batzar Nagusiak, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa eta Abadiñoko udalaren elkarlanari ezker eta auzokoen bultzadaz, datorren apirilaren 5etik aurrera gune historiko honen ateak zabalduko dira, asteburuetan eta baita Aste Santuan ere. Frogatzat hartuko diren aste batzuk eta gero, tartean dauden erakundeak esperientziaren balorazioa burutuko dute, toki historiko honen zabaltzearen jarraipenaren inguruan erabakitzeko. Neguko ordutegia 10,00etatik 18,00etara izango da eta udako ordutegia (maiatzaren 1etik urriaren 1era arte) 10,00etatik 20,00etara luzatuko da.

Leku-zabaltze hau, ekimen berri batzuen lehenengokoa da. Gerediaga Elkartea, dagoeneko, lanean ari da, seinaleztapen-sistema baten diseinuan, bisitariak erreferentzi-puntu honek duen balio kultural eta artistikoa ezagutzeko.

Gerediagako Batzartoki honetako garrantzi historikoa ukaezina da. 600 urtetan zehar, gutxienez, Durangoko Merinaldeko batzar nagusien tokia izanik, gure eskualdeko leku historiko garrantzitsuena eta ikur nagusia da. Gainera Batzar Nagusietako laugarren egoitza bihurtu zen 2003an, Gernika, Abellaneda eta Bilborekin batera. Gaur egun, urtean behin, gutxienez, Bizkaiko Batzar Nagusietako osoko bilkura bertan burutzen da. Horretaz gain, Abadiño herria eta batez ere, auzokoentzat, leku herrikoia da.

Gerediaga elkarteari dagokionez, Durangaldea esparru bezala eta eskualdeko proiektuak bultzatzea xedetzat hartzen duen neurrian, toki enblematikoa bilakatzen da. Hainbat ekitaldi bertan egiten dira urtero, beraien artean Elkarteko Batzar Nagusia, eta aurten apirilaren 6an izanda, zabalik egongo den lehenengoko asteburuan, hain zuzen ere.

## DATU HISTORIKO BATZUK

Lehen aipamena 1410ean “Martzaako jaunaren tregoa eta parka gutuna” bezala ezagutzen den dokumentuan aurkitzen dugu 1387ko batzar bat aipatzerakoan. Durangoko Merinaldearen Batzarrak bertan egiten ziren eta gure jatorrizko erakundeen ikur historiko garrantzitsuenetarikoa dugu, antzinatik.

Bileraren gunea baseliza aurreko zelaia zen. Bertan, lauzaz egindako plaza borobila dago eta inguruan hamabi harri zirkuluan jarrita. Harri bakoitzean esertzen ziren Durangoko Merindadea osatzen duten elizateen izenean joandako ordezkariak eta erdian, beste harri batean Korrejidorea. Batzarrak lehenagoko aktak hasieran jartzen zuten bezala Gerediagako haritzaren gerizpean eta babesarekin ospatzen ziren.

Hala ere, plaza lur azpian geratu zen hamarkadatan, 2003. urtean egindako birgaitzera arte. Foru eginkizunak galdu ostean, mugarriak, apurka-apurka ere desagertu ziren eta XX. mendearen erdialdean bost geratzen ziren. 1961ean baseliza eta bere ingurunean obrak egin ziren eta falta

ziren zazpiak ipini zituzten ostera ere, baina aurreko kokalekua kontutan hartu barik, lauzadura orduan belarrez beteta zegoelako. Mugarriak jatorrizko lekuan jarri ziren, indusketa arkeologikoak egin ondoren, plaza birgaitu zenean.

San Salbatore eta San Klemente baselizaren eraikitze data ezezaguna da, baina, dirudienez, XVI. mendekoa izan daiteke. Kanpo hormetan zeuden harrizko tailuak eta disko-formako estelak berriztu eta barruan jarri ziren 2003ko birgaitzean. Orduan, aldareak ordeztu ziren mahai presidentzial batekin, aldare lanak egiteko ere diseinatuta. Halaber, eliza eta baselizetan ohikoak diren egurrezko bankuak, alboetan jarritako harmailekin ordeztu ziren, baselizaren barrualdeari, parlamentu baten itxura emateko.

Haritzari dagokionean, 1789an Durango eta Ermura lotzen duen errepidearen obraren ondorioz gertatuko luiziagatik, erori egin zen eta berria landatu zuten Gerediagako birgaitze osoa amaitutzat emateko 2003an.

NOTA DE PRENSA

# La Campa Foral de Gerediaga abrirá sus puertas al público los fines de semana, a partir del 5 de abril

Gerediaga, a 2 de abril de 2014

Gracias al trabajo conjunto de Gerediaga Elkartea, las Juntas Generales de Bizkaia, la Mancomunidad de la Merindad de Durango y el Ayuntamiento de Abadiño, y con el impulso de los vecinos del barrio, a partir del 5 de abril se abrirá al público la Campa Foral de Gerediaga los fines de semana y durante Semana Santa. Tras esta experiencia piloto, las instituciones implicadas realizarán una valoración de cara a decidir sobre la continuidad de esta iniciativa. La apertura se realizará entre las 10.00 y las 18.00 horas y, a partir del 1 de mayo, se prevé alargar este horario hasta las 20.00 horas, con el fin de que los visitantes conozcan la Casa de Juntas de Gerediaga.

Esta apertura representa el primer paso de una serie de nuevas iniciativas que se llevarán a cabo en este emplazamiento. Gerediaga Elkartea trabaja ya en el diseño de un nuevo sistema de señalización que permita al visitante conocer el valor cultural y artístico de este punto de referencia.

La importancia histórica de Gerediaga es indudable. Habiendo sido lugar de reunión de las Juntas de la Merindad de Durango, al menos durante 600 años, Gerediaga es, hoy por hoy, uno de los lugares históricos de mayor relevancia de la comarca y su principal icono. En 2003, se convirtió en la cuarta sede de las Juntas Generales, junto con Gernika, Abellaneda y Bilbao. Actualmente, se celebra al menos una vez al año un pleno ordinario y sirve de lugar de encuentro en algunas festividades locales.

Por lo que respecta a Gerediaga Elkartea, en la medida de que tiene como ámbito de actuación el Duranguesado y como objetivo impulsar diferentes proyectos comarcales, la actual sede parlamentaria de las Juntas Generales se ha convertido en un lugar emblemático. Anualmente, tienen lugar allí diferentes actividades, entre las que se encuentra la Asamblea General de socios, que este año será este domingo, 6 de abril, precisamente, el primer fin de semana que será posible la entrada al espacio foral.

## HISTORIA DE GEREDIAGA

La primera referencia de la campa foral de Gerediaga y su ermita -actual sede parlamentaria- la encontramos en el documento “Carta de Tregua y Perdón del señor de Marzana”, que cita una reunión que tuvo lugar en 1387 en este enclave. Así pues, allí se celebraban por aquel entonces las Juntas de la Merindad de Durango, convirtiéndose en uno de los principales símbolos de las instituciones de la comarca.

El lugar de reunión era la campa que se encuentra delante de la ermita, en donde hay una plaza circular enlosada y, a su alrededor, doce piedras dispuestas en círculo. En cada uno de estos asientos se colocaba el representante de las anteiglesias que componían la Merindad de Durango

y, en medio, en otra piedra, el corregidor. Como se recoge en las actas de las primeras reuniones, los encuentros se hacían bajo la sombra y el cobijo del roble de Gerediaga.

Sin embargo, la plaza permaneció sepultada durante décadas, hasta su rehabilitación en el año 2003. Después de la pérdida de su función foral, los asientos de piedra, poco a poco, fueron desapareciendo y, a mediados del siglo XX, sólo se conservaban cinco de ellos. En 1961, cuando se ejecutaron las primeras obras de rehabilitación en la ermita y su entorno, se repusieron los siete que faltaban, pero sin tener en cuenta su ubicación anterior, ya que el enlosado estaba, entonces, cubierto de vegetación. Los mojones se instalaron después en su lugar original, tras las excavaciones arqueológicas realizadas cuando se rehabilitó la plaza ya en este siglo.

La fecha de edificación de la ermita de San Salvador y San Clemente de Gerediaga es desconocida. Algunos expertos la datan en el siglo XVI. Las tallas y estelas discoidales de piedra, que estaban en las paredes exteriores del templo, se trasladaron al interior en la rehabilitación del 2003. Entonces los altares se sustituyeron por una mesa presidencial, que también pudiera hacer las veces de altar. Además, los tradicionales bancos de madera de iglesias y ermitas se cambiaron por unos escalones de piedra en los laterales, para dotar al interior de la iglesia de un aspecto más similar al de un parlamento.

Respecto al roble, se desplomó debido al desprendimiento de tierras, que tuvo lugar tras las obras de construcción de la carretera que une Durango y Ermua, en 1789. En la última reforma, se volvió a plantar uno nuevo.